

# EGUNEAN ZEHAR ZAINZAILEAK ATSEDEN HARTZEKO ARRETA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 65+ mendekotasuna > Eguneko zentro baterako sarbidea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

Edozein **mendekotasun**-gradu duen pertsonaren **familia zaintzailea**.

## Kostua

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua**, onuradunaren egoera ekonomikoaren eta erabileraren arabera.

## Baldintzak

**Zaintzaile nagusia** izatea.

Atsedeen hartzeko **beharra**.

**Erroldatzea** (12 hilabete)

## Zertan datza?

Mendekotasunen bat duten pertsonen aldi baterako zentro edo eguneko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen zaie ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedeen hartu behar du, oporretara joan behar du...).

## Norentzat?

Edozein **mendekotasun**-gradu duten pertsonen **zaintzaile nagusiak eta senideak**, zaintzan atsedena behar dutenak.

## Zein da zerbitzuaren kostua?

**Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua da**, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsona eta zaintzailea **etxebizitza eta udalerrri berean erroldaturik egotea**.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea **12 hilabetez**.

Atsedeen-egonaldia egingo den eguneko arreta-zerbitzura sartzeko **baldintzak betetzea**.

Zaintzailea eta mendekotasuna duen pertsona **elkarrekin bizi direla egiaztatzea**, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzura** joan zaitezke.

## Informazio gehiago:

- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Araban](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Bizkaian](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedeen hartzeko arreta Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)